

Straight Pay

Enpresa guztiek bezala, gure helburu nagusietako bat gure produktua mundu osora zabaltzea da baina horretarako, hasieran gure inguruan zehar dauden parking desberdinetan salduko dugu hau.

Lehenik Bizkaiko parking nagusiei salduko genioke, jakinda probintza honetan 88 parking pribatu desberdin daudela .Arrakasta izango bagenu, ondoren Hego Euskal Herria osatzen duten gainerako probintzietan zabaldu edo hedatuko genuke hau, Gipuzkoak dituen 49 parkingak, Arabako 54ak eta Nafarroako 49ak guztiz mendean hartuz.Euskal herriko parkimetro gehienei gure produktua salduta, Espainiako merkatuan sartuko ginateke, bertan 1709 parkimetro egonda. Horrela gure markak arrakasta handia hartuko luke eta arrakasta izanda askoz errazagoa izango litzateke, bai Europar Batasunean dauden herrialdetan, bai elkargo honetatik kanpo dauden lurraldeetan (Ameriketan, adibidez) esku sartzea.

Hasiera batean gure ideia izango litzateke lurralde bakoitzeko kapitaletan (Bilbo,Donosti,Gazteiz eta Iruñan) martxan jartzea eta bigarren fase baten hiri nagusietan guztiak osatu arte.

Beraz, gure merkatua oso zabala da. Esan bezala, hasiera batean gure inguruan zehar salduko genuke gure produktua eta ondoren hau hedatuz joango da, mundu osoko merkatuko parte izan arte.